
Aieteko **Giza** **Eskubideen aldeko** **Pedagogia-Baliabideen** **Zentroaren** proiektua

Donostia, 2018ko otsaila



Aurkibidea

Sarrera.	5
a) Giza eskubideen aldeko hezkuntza.	5
b) Pedagogia-baliabideek giza eskubideen aldeko hezkuntzan duten eginkizuna.	8
c) Tokiko erakundeen bat-egitea.	9
1. Pedagogia Baliabideen Zentroaren Proiektua	
Esparru orokorra.	11
1.1. Oinarriak.	11
1.1.1. Abiapuntua.	11
1.1.2. Egitekoa eta xedeak.	11
1.1.3. Zerbitzuak.	12
1.1.4. Non: Aieteko Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea.	12
1.1.5. Giza eta ekonomia-baliabideak.	13
1.2. Proiektuaren jarduketaren eremuak eta ardatzak.	13
1.2.1. Zer da eta norentzat?	13
1.2.1.1. Hezkuntza-pedagogia.	13
1.2.1.2. Gizarte-pedagogia.	14
1.2.1.3. Herritarren partaidetza.	14
1.3. Jarduteko programaren eragileak.	15
1.3.1. Nazioarteko Mintegia.	15
1.3.2. Giza Eskubideen aldeko Pedagogia Baliabideen Azoka.	15
1.4. Zentroaren etengabeko zerbitzuak.	17
1.4.1. Biltzea: Mediateka.	17
1.4.2. Sortzea: Materiala sortzea.	18
1.4.3. Zabaltzea: Zabaldu eta hedatzeko ekintzak.	18
1.4.4. Zeharkako zerbitzua: Ko-parte hartzea.	19
1.4.4.1. Lankidetza elkarrekin eta erakundeekin.	19
1.4.4.2. Nazioarteko lotura.	20
2. Fase pilotua: 2018-2019.	21
3. Finkatzeko fasea: 2020-2030.	24

Sarrera

Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostiako Udalak Aieteko Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean Giza Eskubideen aldeko Pedagogia Baliabideen Zentro bat elkarrekin sustatu nahi dute. Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburutzaren lanetan partekatzen duten lanaren esparruan hiru erakundeek burutzen duten lankidetzatik jaio da proposamen hori.

Halako ezaugarriak dituen zentro bat sortzeko arrazoiak giza eskubideen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren nazioarteko erakundeen zuzentzarau eta gomendioei lotuta daude, baita EAEko egungo testu-guru soziopolitikoan antzeman daitezkeen eskaeren eta premien erantzunari eta arlo honetan zenbait erakunde-jarduketan arteko sinergiaren eta osagarritasunaren bilaketari lotuta ere.

a) Giza eskubideen aldeko hezkuntza

Giza eskubideen aldeko hezkuntzak, argi eta garbi, giza eskubideak balia daitezen laguntzen du eta **giza eskubideak gure inguruan eta gizartean, bere osotasunean, baliatu daitezzen lortzeko ardura partekatu behar dugula** ulertarazten digu. Aldi berean, giza eskubideen aldeko hezkuntzak epe luzean gehiegikeriak eta gatazkak saihesten daitezzen laguntzen du, berdintasuna sustatzen du eta partaidetza bultzatzen du.

Nazioarteko komunitatean, Nazio Batuek giza eskubideen sustapenaren arloaz eta eskubide horiek guztiz baliatu eta defendatzean hezkuntzak duen garrantziaren arloaz arduratzen da. Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi-komisarioak dio giza eskubideen aldeko hezkuntzak "giza eskubideei buruzko ezagutzak eta eskubide horiek babesteko mekanismoak emateaz ez ezik, **eguneroko bizitzan giza eskubideak sustatu, defendatu eta aplikatzeko beharrezko gaitasunak** ematen dituela ere"¹.

Are gehiago, Nazio Batuen Erakundearen arabera, giza eskubideak informazioa duen biztanleriak eskubide horiek etengabe eskatuz bakarrik balia daitezke. Hortaz, giza eskubideen aldeko hezkuntzak herritarren artean gaitasun horiek bultzatzen ditu eta epe luzean gehiegikeriak saihesten daitezzen asko laguntzen du. Halaber, inbertsio handi bat da pertsona guztien giza eskubideak baloratu eta errespetatuko dituen gizarte justu bat lortzeko saiakeran².

Giza eskubideen aldeko hezkuntzaren sustapenaren inguruan Nazio Batuen Erakundearen lan hau erakundearen agiri askotan jaso eta biltzen da, esaterako, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean (26. artikulua) eta, besteak beste, honako hauek gailen ditzakegu: Arrazagatiko Diskriminazioaren modu guztiak Ezabatze Nazioarteko Konbentzioa (7. artikulua), Ekonomia, Gizarte eta Kultura Eskubideen Nazioarteko Ituna (13. artikulua), Emakumeen aurkako Diskriminazio modu guztiak Ezabatze Nazioarteko Konbentzioa (10. artikulua), Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa (28. artikulua), Vienako Adierazpena eta Ekintza Programa, giza eskubideen aldeko hezkuntzari buruzkoa, baita, hezkuntzaren arloan, UNESCOk, besteak beste, "Guztiantzako hezkuntza" programarekin egindako lana ere.

Aipatu tresnei jarraikiz, giza eskubideen aldeko hezkuntza giza eskubideen kultura unibertsala sortzeko **ikaskuntza-, irakaskuntza-, prestakuntza- eta informazio-jarduketan talde** gisa defini daiteke eta honako helburu hau dauka:

1 Ekintza plana – Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzarako Mundu Programa - Lehen fasea: <http://www.ohchr.org/Documents/Publications/PAActionEducationspdf>

2 Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi-komisarioa - <http://www.ohchr.org/EN/Issues/Education/Training/Pages/HREducationTrainingIndex.aspx>

-
- a) Giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen errespetua indartzea;
 - b) Giza nortasuna eta gizakiaren duintasun-zentzua guztiz garatzea;
 - c) Aniztasunaren inguruko ulermena, tolerantzia eta berdintasuna sustatzea;
 - d) Zuzenbidezko estatua nagusi duen gizarte aske eta demokratiko batean pertsona guztien benetako partaidetza erraztea;
 - e) Bakea bultzatu eta mantentzea;
 - f) Pertsonak eta gizarte justizia oinarri dituen garapen iraunkorra bultzatzea³.

Lan hori guztia babestuz, 2011ko abenduaren 19an, **giza eskubideen aldeko hezkuntzari eta prestakuntzari buruzko Nazio Batuen Adierazpena** onartu zen⁴. Adierazpen horren 1. artikuluan hauxe adierazten da: *“Pertsona orok giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen inguruko informazioa edukitzeko, bilatzeko eta jasotzeko eskubidea dauka”*.

(4. artikulua)

Giza eskubideen aldeko hezkuntzak eta prestakuntzak Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala eta gainontzeko tresna eta itun egokiak eduki behar dituzte, honako xede hauek bideratzeko asmoz:

- a) *Giza eskubideen arauen tea printzipio unibertsalen ezagutza, ulermena eta onarpena sustatzea, baita nazioartean, eskualde- eta nazio-mailan giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen babesaren bermeak ere;*
- b) *Giza eskubideen kultura unibertsala garatzea (bertan guztiek haien eskubideen eta betebeharren berri eduki dezatela, gainontzekoen eskubideei dagokienez) eta pertsonaren garapena gizarte aske eta bakezalearen, askotariko eta barne hartzaillearen kide arduradun gisa bideratzea;*
- c) *Giza eskubide guztiak benetan balia daitezten lortzea eta tolerantzia, bereizkeriarik eza eta berdintasuna sustatzea;*
- d) *Kalitatezko giza eskubideen aldeko hezkuntzarako eta prestakuntzarako sarbidearen bidez guztiontzako aukera-berdintasuna bermatzea, inolako bereizkeriarik gabe;*
- e) *Giza eskubideen gehiegikeriak eta urratzeak saihesten daitezten laguntzea, baita diskriminazioaren eta arrazakeriaren, estereotipoen eta gorrotora bultzatzeko bideen eta aurreiritzi eta jokabide kaltegarrien modu guztiei aurre egiten eta horiekin amaitzen laguntzea.*

Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Hezkuntzaren Mundu Programari jarraikiz, honako hauek dira giza eskubideen aldeko hezkuntza-jarduketan xedeak⁵:

- a) Giza eskubideen interdependentzia, interrelazioa, zatiezintasuna eta unibertsaltasuna sustatzea, eskubide zibilak, politikoak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak barne, baita garapenerako eskubidea ere;
- b) Desberdintasunen errespetua eta balorazioa bultzatzea, baita arraza, sexu, hizkuntza, erlijio, politikazko zein bestelako iritzi, jatorrizko herrialde, etnia edo gizarte, baldintza fisiko edo mental, sexu-orientazio edo beste arrazoi batzuegatik bereizkeriari aurka egitea ere.
- c) Giza eskubideen arloko arazo kronikoen eta hasiberrien azterketa ahalbidetzea, bereziki, pobrezia, indarkeriazko gatazkei eta diskriminazioari dagokienez, politikaren, gizartearen, ekonomia-aren, teknologiaren eta ekologiaren esparruetan jazozen diren aldaketa azkarrak kontuan hartuta, giza eskubideei buruzko arauekin bateragarriak diren erantzunak eta konponbideak bilatze aldera.

3 <http://www.ohchr.org/Documents/Publications/PActionEducationsp.pdf>

4 <http://www.ohchr.org/SP/Issues/Education/EducationTraining/Pages/UNDHREducationTraining.aspx.aspx>

5 http://www2.ohchr.org/english/bodies/hrcouncil/docs/15session/A.HRC.15.28_sp.pdf

- d) Komunitateak eta pertsonak gaitzea, giza eskubideen aldeko haien premiak zehatz ditzaten eta eskubide horiek egiazki baliatzea.
- e) Arlo horretan erantzukizuna duten pertsonen gaitasuna garatzea (bereziki, gobernuko funtzionarioak). Pertsona horiek haien jurisdikzioaren pean dauden pertsonen giza eskubideak errespetatu, babestu eta baliatu behar dituzte.
- f) Hainbat kultura-ingurutan emandako giza eskubideen printzipioak oinarri hartzea eta herrialde bakoitzeko historia- eta gizarte-gertaerak kontuan hartzea.
- g) Mundu-, toki-, nazio- eta eskualde-mailako tresnei eta mekanismoei buruzko ezagutzak eta giza eskubideak babesteko asmoz aplikatzeko gaitasuna sustatzea.
- h) Giza eskubideak sustatzeko, ezagutzak, analisi kritikoak eta teknikoak barne hartuko dituzten pedagogia-metodo partizipatiboak erabiltzea.
- i) Ikaskuntza- eta irakaskuntza-inguruak beldurrik eta gabeziarik gabe sustatzea. Inguru horiek partaidetza, giza eskubideen gozamina eta giza nortasunaren erabateko garapena ahalbidetu dezatela.
- j) Eguneroko bizitzan egokiak izatea, giza eskubideak arau abstraktuen adierazpen bat ez izatea eta gizarte-, ekonomia-, kultura- eta politika-baldintzen egoerara egokitzeko baliabideen inguruko elkarrikeria batean pertsonak parte har dezaten.

Horrez gain, 2010ean, Europako Kontseiluak **Herritar Demokratikoentzako Hezkuntzari eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzari buruzko Gutuna** onartu zuen⁶. Bertan, arlo horretako konpromisoa agerian jarri du eta herritar demokratikoentzako hezkuntza “ikasleei ezagutzak, ahalmenak eta ulermena emateaz gain eta horien jarrerak eta jokabidea garatzeaz gain, gizartearen haien eskubide eta erantzukizun demokratikoak baliatu eta defendatzeko bitartekoak emango dizkien hezkuntza, prestakuntza, sentsibilizazio, praktika eta jarduketatzat jotzen da. Hori guztia aniztasuna antzemateko eta bizitza demokratikoan zeregin aktiboa izateko”.

Europako Kontseiluaren Gutunak gogora ekartzen digu “herritar demokratikoentzako eta giza eskubideen aldeko hezkuntza ororen funtsezko elementu bat gizarte-koehesioaren, kultura arteko elkarrikeriaren eta aniztasunaren eta berdintasunaren balioaren kontzientziaren sustapena dela, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna barne; horretarako, gatazkak murrizteko, sinesmenen eta talde etnikoen arteko desberdintasunak hobeto antzeman eta ulertzeko, giza duintasunaren eta partekatutako balioen aldeko elkarrikeriko errespetua ezartzeko, elkarrikeria sustatzeko eta arazoak eta gatazkak konpontzeko indarkeriarik ez sustatzeko bidea emango duten ezagutzak, gaitasun pertsonalak eta sozialak eta ulermena eskuratzea ezinbestekoa da”.

Aldi berean, gutun horren arabera, “pedagogia-ikuspegiak eta irakaskuntza-metodoak sustatu beharko lirateke, gizarte demokratiko eta kulturantzun batean bizitzen ikasteko eta ikasleek gizarte-koehesioa sustatzeko, aniztasuna eta berdintasuna baloratzeko, desberdintasunak antzemateko –bereziki, hainbat talde konfesional eta etnikoren artean–, desakordioak eta gatazkak indarkeriarik gabe, banakako eskubideak errespetatuz, kudeatzeko eta diskriminazioaren eta indarkeriaren modu guztiei –bereziki, larderiari eta jazarpenari– aurre egiteko, beharrezko ezagutzak eta gaitasunak eskura ditzaten.

Bai Nazio Batuen Adierazpenak, bai Europako Kontseiluko Gutunak gogora ekartzen digute giza eskubideen aldeko hezkuntza eta prestakuntza bizitza guztian zehar luzatzen den prozesu bat dela, adin guztiak eta gizartearen sektore guztiak hartzen dituela barne, baita teknologia berrien erabilera izateko premia, komunikabideen integrazioa eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloko gobernuaren ekimenetan hezkuntza-kidegoa, gizarte zibileko elkarteak eta eragileak barne hartzeko lehentasuna ere.

6 <https://rm.coe.int/CoERMPublicCommonSearchServices/DisplayDCTMContent?documentId=09000016804969d9>

b) Baliabide pedagogikoek Giza Eskubideen aldeko hezkuntzan duten eginkizuna

Giza Eskubideen aldeko Pedagogia Baliabideen Zentro bat sortzeko proposamen espezifiko ez da gure herrialdean sortu den ekimen isolatu bat. Nazioarteko erakundeen berariazko zuzentarauei eta gomendioei ematen die erantzuna. Hala, Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Hezkuntzarako Mundu Programak honako hau gailentzen du:

“Hezkuntzaren eta prestakuntzaren baliabideak eta materialak, metodologiaren aldetik irmoak diren praktiketatik ateratako irakaskuntzak eta adibideak toki- eta nazioarte-mailan kanal elektronikoen bitartez eta linean baliabideen zentroen, datu-baseen bidez eta bilerak eginez partekatu beharko liriateke”.

Horrez gain, Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Hezkuntzarako Mundu Programak hezkuntza-materialak eta -baliabideek giza eskubideen aldeko hezkuntzaren inguruan izan dezaketen egiteko garrantzitsua agerian jarri zuen. Horregatik, honako honen garrantzia azaldu zuen:

- I) Giza eskubideen aldeko hezkuntzarako materialek kultura-testuinguru egokietan eta historia-eta gizarte-gertaeretan errotutako giza eskubideen printzipioak oinarri dituztela bermatzea;
- II) Giza eskubideen aldeko hezkuntza bideratzeko, materialen bilketa, trukea, itzulpena eta egokitzapena sustatzea.
- III) Ikasketa-plan ororen testuliburuak eta material didaktikoak aztertu eta berrikustea, giza eskubideen printzipioekin bat etor daitezten;
- IV) Hainbat hezkuntza-material eta -baliabide sortzen laguntzea, esaterako, irakasleen gidak, gidaliburuak, testuliburuak, istoriotxo komikoak eta ikus-entzunezko eta artearen laguntza-materialak, giza eskubideen printzipioekin bateragarriak direnak eta aipatu ikaskuntzaren eta irakaskuntzaren ikuspegietan partaidetza aktiboa sustatuko dutenak.
- V) Giza eskubideen aldeko hezkuntzaren materiala banatzea, kopuru nahikoa eta hizkuntza egokian eginda (herrialde eleaniztunen kasuan, ikastetxeetan hizkuntza-aniztasunaren azterlan zabala egin beharko da, hizkuntza zabalduenetan materialak egite aldera) eta kasuan kasuko pertsoneri material hori nola erabiltzen den erakustea;
- VI) Baliabide horiek giza eskubideen printzipioekin bat datozela eta bizitza errealearen egoerekin zerikusia dutela bermatzea, argitaratu aurretik adituen talde nazional bati berrikus dezan aginduz.
- VII) Baliabide didaktikoen aukera zabala argitaratzea eta zabaltzea erraztea, adibidez, gobernu kanpoko erakundeek egindakoak, eta horiek eskuratzeko sarbide orokortua ahalbidetzea.⁷

Giza eskubideen aldeko hezkuntza eraginkorra eta kalitatezkoa edukitzeko, beharrezkoa da gaikuntza egokiaren baliabideak eta materialak sortu eta zabaltzea. Horregatik, Nazio Batuen programak berak beharrezko zenbait funtzio aipatu zituen, esaterako:

- Giza eskubideen aldeko hezkuntzaren eremuan irakaskuntza eta ikaskuntzarako gomendatutako praktiken adibideak bildu eta zabaltzea;
- Giza eskubideen aldeko hezkuntzaren eremuan irakaskuntzari eta ikaskuntzari lotutako sarbide errazeko baliabide-zentroak ezartzea, liburutegiak eta datu-baseak barne.
- Harremanetarako sareak sortzea eta praktikak trukatzeko erraztea eta hezkuntza-eragile batzuen artean harremanetarako sareak eta lankidetzak ezartzea;
- Giza eskubideen aldeko hezkuntzaren eremuan ikerketak sustatzea;
- Gobernu kanpoko erakundeek eta gizarte zibilaren beste sektore batzuek garatutako gaikuntza-metodoak bildu eta zabaltzea.
- Interneten giza eskubideen aldeko hezkuntzarekin zerikusia duten leku espezializatuak ezartzea edo dagoeneko daudenak aprobetxatzea.

7 <http://www.ohchr.org/Documents/Publications/PAActionEducationsp.pdf>

Dagoeneko egon badauden materialak eta baliabideak bildu eta zabaltzeko garrantziaz gain, materialak sortu eta egokitzean ere arreta jarri behar da. Horren harira, honako xede hauek gailen genitzake:

- Giza eskubideen aldeko hezkuntzarako metodologia eta tresna berritzaileak eta eraginkorrak garatzen laguntzeko ikerketa ahalbidetu eta finantzatzea, baita egon badauden praktikak aztertzen eta baloratzen eta ebaluazioak egiten ere.
- Hezigiagai giza eskubideen kontzeptuak haien bitzta eta esperientzietan ulertu eta aplikatzeko aukera emango dieten ikaskuntza esperimentalaren metodologiei buruz ikertzea.
- Giza eskubideen printzipioei eta giza eskubideen berariazko tresnei modu jakin bat emateko metodoen ikerketa ahalbidetu eta finantzatzea.
- Beken emakida suspertzea, giza eskubideen aldeko hezkuntza eta prestakuntza sustatzeko bide gisa.
- Giza eskubideen aldeko hezkuntzaren materialen itzulpena eta egokitzapena sustatzea.⁸

Pedagogia Baliabideen Zentroek hezkuntzaren arloko langileei, zenbait eremutako elkarte eta profesionali baliabideak, agiri-zerbitzuak ematen dizkiete eta batzuetan azpiegiturak, giza eskubideen aldeko eta partaidetzaren berariazko materialak, gai horri buruzko eta argitalpen espezializatuen oinarrizko agiriak eduki ditzaten, horien erabilerari buruz aholkatuz.

Hala, bizikidetzeta eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren hezkuntza-jarduketari eta gizarte-ekimenei laguntza ematen zaie, esperientzia arrakastatsuak zabaldu eta trukatzeari eta profesionalen eta erabiltzaileen hausnarketaren sustapenari esker.

Etengabeko zerbitzuez gain –adibidez, mediateka–, giza eskubideen aldeko hezkuntzaren lan-eremu zabal osatzen duten gaien inguruan jarduketara publiko puntualak antola ditzakete, norberaren ekimenez edo beste erakunde eta elkarte batzuekin elkarlanean arituz.

c) Toki-erakundearen bat-egitea

Zentroaren proiektu hau Euskal Autonomia Erkidegoan dagoeneko egon badauden memoriaren, bizikidetzaren eta giza eskubideen pieza osagarria da. Orain arte jorratu gabe zegoen zeregin oso espezifiko, praktikoa eta zehatzari erantzuna emango dio: pedagogia-baliabideen sistematizatzea giza eskubideak zabal daitezkeen. Xede horrek borondatea eta giza eskubideekiko konpromisoa eta hiru erakunde sustatzaileek partekatutako bizikidetzeta hartzen ditu barne.

Halaber, gure inguruan, erakunde publikoek eskubideen eta bizikidetzaren aldeko hezkuntzaren garrantzia jakinarazi dute. Eusko Jaurlaritzako 2013-2016rako Bake eta Bizikidetzeta Planak bizikidetzarako gizarte-hezkuntzak daukan garrantzia onartzen du, giza eskubideen defentsa zaurkotasun-egoeran jartzen duten fenomeno antisozial horien erantzun gisa.

Horregatik, plan honek giza eskubideen eta bizikidetzaren aldeko hezkuntza sustatzen du: “Aurrera begira eta gure helburuak indarkeriaren prebentzioa, giza eskubideen babes unibertsala eta gizartea elkartzeko bizikidetzaren eta bakearen kultura direla kontuan izanik, gizartearen eta hezkuntzaren arloko zeharkako proiektu integrala sustatzeko konpromisoa hartzen dugu”⁹.

Gipuzkoako Foru Aldundiak bere politiken zeharkako ardatz gisa giza duintasuna eta giza eskubideen pedagogia, hizkuntza- eta genero-berdintasuna eta kultura demokratikoaren sustapena eta herritarren partaidetza ditu. Hala, hizpide dugun arlo honetako xedea hau da: “bakea behin betiko eta modu atzeraezinean finka dadin, bizikidetzeta bidera dadin eta Gipuzkoako kultura demokratikoan sakon dadin laguntzea, Gipuzkoako lurraldean giza eskubideen ezagutzaren eta horiekiko errespetuaren kultura sustatuz”¹⁰.

8 http://www2.ohchr.org/english/bodies/hrcouncil/docs/15session/A.HRC.15.28_sp.pdf

9 http://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/3871/plan_paz_convivencia.pdf

10 2015-2019 Kudeaketa Plan Estrategikoa, Gipuzkoako Foru Aldundia.

Halaber, Donostiako Udalak 2015-2019 Gobernu Programan jaso du elkarrenganako errespetua oinarri duen bakearen kulturaren eta bizikidetzaren aldeko apustua eta bizikidetzaren finkatzeko balio horien inguruan lan egitea beharrezkoa dela adierazi du. Horrez gain, "Giza Eskubideen Defentsak Donostiako nortasunaren ezaugarri bat izan behar duelakoan dago"¹¹ eta giza eskubideen aldeko hezkuntza-programei berriazko laguntza ematea sustatzen du.

Ilido horretan, euskal gizarteak, zenbait erakunde, elkarte eta ekimenen bidez, bizikidetzaren eta giza eskubideak sustatu eta horien alde egiteko jarduketak sustatzean esperientzia handia dauka. Azken hamarkadetan, gizarte zibileko elkarteek eta erakundeek balio handiko zeregina izan dute bakearen, indarkeriarik ezaren eta giza eskubideen aldeko borroka egiten.

¹¹ 2015-2019 Gobernu Programa, Donostia.

1. Pedagogia Baliabideen Zentroaren Proiektua

Esparru orokorra

1.1. Oinarriak

1.1.1. Abiapuntua

Pedagogia Baliabideen Zentroa memoriaren, bizikidetzaren eta giza eskubideen politika publikoen azpiegituren barruan berriazko pieza espezializatu eta osagarria da. Halaber, zentro hau Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburutzaren legatuaren eta kultura –bizikidetzaren hobe eraikitzekeko tresna gisa– sustatzeko duen xedearen parte izango da. Era berean, azpiegitura hori euskal gizartea bizitzen ari den bake- eta bizikidetzaren prozesuaren emaitza dela esan daiteke.

Zentro horrek hiru jarduketa-mota garatuko ditu: giza eskubideen aldeko pedagogia-baliabideak **biltzea, sortzea eta zabaltzea**. Baliabide horiek hezkuntzaren, pedagogiaren, gizartearen eta herritarren partaidetzaren eremuetara zuzenduko dira. Giza eskubideak lantze aldera, ikuspegi holistikoa batetik, Zentro honen pedagogia-baliabideek oinarri dituzten gaikako ardatz nagusiak bi izango dira:

- giza eskubideak, bakearen kultura eta bizikidetzaren.
- giza eskubideak, bereizkeriarik eza eta aniztasunaren bizikidetzaren.

Honela, zentroaren eratzek Nazio Batuen printzipioak jarraitzen ditu, giza eskubideen aldeko hezkuntzaren baliabideei eta materialari dagokienez, baliabide horiek tokiko mailan eta nazioartean parteka daitezela sustatuz, baliabide-zentroen, datu-baseen, zabalkunderako online kanalen bidez eta bilerak eginez.

Pedagogia-baliabideen zentroak giza eskubideen eta memoriaren erakunde publikoekin –adibidez, Gogora, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuarekin– jardungo du, baita kultura-erakunde nagusiekin ere –esaterako, Gernikako Bakearen Museoa, Terrorismoaren Biktimen Memoria Zentroa– edo gure inguruan badauden Giza Eskubideen Zinemaldiak ere. Aipatu azpiegiturekin batera lan egingo du, baliabideak optimizatzeko eta lana eraginkor egiteko.

Aldi berean, zentroak giza eskubideen sustapenaren eta defentsaren inguruan lan egiten duten EAEko elkarte zibil eta hezkuntza-erakunde askok egiten duten zeregina osatu eta horri oinarria eman nahiko dio.

1.1.2. Egitekoa eta xedeak

Zentroaren egitekoa komunitate informatua sustatzean datza. Honela, EAEn bizi garen pertsonok gure eskubideen berri eta horiek ulertzeko aukera izan dezagun eta eskubide horiek gure eguneroko bizitzan baliatzeko gai izan gaitzen, baita iraganeko eta etorkizuneko giza eskubideen eta injustizien urratzeen kontziente izan gaitzen ere, gure gizartearen aniztasunean bizikidetzaren bakea oinarri duen etorkizuneko emaitza bat emateko gai izanda.

Honako hauek dira Pedagogia Baliabideen Zentroaren eratzek dituen helburu nagusiak:

- Giza eskubideekiko konpromisoa hartuko duen gizartea sustatzea, eskubide horien urratzeen aurrean gaitasun kritikoa izango duena.

-
- Gure egungo inguruan aniztasunaren aldeko bakearen eta bizikidetzaren pedagogia garatzeko hezkuntza aukera partizipatiboak eskaintzea.

Giza eskubideen tratamendua ikuspegi integral batetik jorratuko da, interdependentziaren ulermena faboratuz eta giza eskubide baten inguruan aurrera egiteak gainontzekoen inguruan aurrera egitea bultzatzen eta errazten duela esan nahi duela sustatuz.

Unibertsaltasuna oinarri hartuta, gure toki-esparruko giza eskubideen egoera jorratuko da, munduko beste herrialde batzuetan horien egoera zein den kontuan hartuko den bitartean.

Horretarako, zentroak bere lana honako berariazko xede hauetan egituratuko du:

- a. Giza eskubideen aldeko pedagogia-baliabideak, materialak, hezkuntzaren euskarriak eta jarraibide onak, gizarte-pedagogia eta herritarren partaidetza **biltzea**.
- b. Giza eskubideen aldeko hezkuntzaren pedagogia-baliabideak, gizarte-pedagogia eta herritarren partaidetza **sortzea**.
- c. Giza eskubideen aldeko pedagogia-baliabideak, materialak, hezkuntzaren euskarriak eta jarraibide onak, gizarte-pedagogia eta herritarren partaidetza **zabaltzea**, hezkuntza-eragileekin, elkarteekin eta erakundeekin elkarlanean arituz

1.1.3. Zerbitzuak

Honako honetara zuzendua egongo da zentroa:

- Giza eskubideen aldeko pedagogia-baliabideen eta herritarren partaidetzaren euskal zentro gisa erabiltzea, ikuspegi horretatik memoriaren, bizikidetzaren eta giza eskubideen beste erakunde batzuen egitekoa osatuz.
- Giza eskubideen defendatzaileek, boluntarioek, ikasleek eta hezitzaileek garatzen duten zereginari laguntzeko pedagogia-baliabideak eskaintzea.
- Eragileek laguntzarako pedagogia-baliabideak eskura ditzaten ahalbidetzea, bizikidetzaren sustapena, gizarte-partaidetza eta eskubideekiko errespetua bideratuz.

1.1.4. Non: Aieteko Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea Donostian

Pedagogia Baliabideen Zentroa Aieteko Jauregian dagoen Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean egongo da (Donostia). Hemen eta mundu osoan bakearen kultura, giza eskubideen sustapena, bake-prozesuak zabaltzeko eta memoria historikoa berreskuratzeko lan egiten da bertan.

XIX. mendeko jauregi hori urtetan errege-erreginen familia eta ahaideen eta nobleen egoitza izan zen. Horrez gain, Francisco Francok diktadura-garaian udako egoitza gisa hautatu zuen. Horregatik, aipatu jauregiko Bakearen eta Giza Eskubideen Etxearen kokapenak gizarte demokratikoarentzat berreskura dadin defendatzen du.

Pedagogia-baliabideen Zentro hau Donostian kokatzea, azken hamarkadetan terrorismoaren eta indarkeriaren minak bereziki kolpatutako eta, aldi berean, bizikidetzaren aldeko ekimenak bultzatzen eta giza eskubideen kultura eraikitzen esperientzia handiko hiri honetan kokatzea bakearen eta giza eskubideen kulturaren aldeko berariazko apustua da.

Horregatik guztiagatik, espazio horretan Zentroak duen kokapenak Aieteko Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean garatzen ari den giza eskubideen arloko lana lagundu eta indartuko du, zeregin eta esanahi berriak emanez gunehorri.

1.1.5. Giza eta ekonomia-baliabideak

Hiru erakunde sustatzaileek irizpidea partekatzen dute, alegia, aipatu zentroak toki-eremuan arlo horretan dauden giza baliabideak optimizatu eta aprobetxatu beharko ditu eta ez da beharrezkoa izango lehen etapan langileen hornidura berriak sortzea.

Horrez gain, behin zentro hori sustatzeko erabakia bateratuta, hiru erakunde sustatzaileek zentroaren finantziazioaren adostasuna hitzarmen baten bidez formalizatuko dute.

1.2. Proiektuaren jarduketaren eremuak eta ardatzak

Jarraian, zentroaren lan-proposamenak oinarri izango dituen jarduketaren eremuak eta ardatzak aipatuko dira:

Jarduketaren ardatza Eremuak	BILTZEA	SORTZEA	ZABALTZEA
HEZKUNTZA- PEDAGOGIA	Giza eskubideen aldeko hezkuntzarako munduko pedagogia-baliabideak eta baliabide sortzaileak.	Giza eskubideen aldeko hezkuntzarako pedagogia-baliabideak eta baliabide sortzaile propioak	Zabalkunderako estrategiak, hezkuntza- eta unibertsitate-eragileekin bat etorritz.
GIZARTE-PEDAGOGIA	Giza eskubideen gizarte- eta politika-kultura sustatzeko munduko pedagogia-baliabideak eta baliabide sortzaileak.	Giza eskubideen gizarte- eta politika-kultura sustatzeko pedagogia-baliabideak eta baliabide sortzaile propioak	Zabalkunderako estrategiak antolatutako gizarte zibileko eta beste erakunde batzuetako eragileekin batera.
HERRITARREN PARTAIDETZA	Giza eskubideen partaidetzarako esperientzia eta metodologia partizipatiboak.	Giza eskubideen partaidetzarako esperientzia eta metodologia partizipatiboak.	Zabalkunderako estrategiak antolatutako gizarte zibileko eta beste erakunde batzuetako eragileekin batera.

1.2.1. Zer da eta norentzat?

Jarduteko eremu bakoitzean zentroak, hartzaileari dagokionez, ekintza-gune bat eta lehentasun bat izango ditu.

1.2.1.1. Hezkuntza-pedagogia

Ekintza-gunea

Pedagogia-baliabideak identifikatu, bildu eta zabalduz, giza eskubideen aldeko hezkuntzaren integrazioan hezkuntza-langileen zeregina babestea eta indartzea, hemen hain zuzen:

- Lehen Hezkuntza.
- Bigarren Hezkuntza.
- Goi-mailako Hezkuntza (unibertsitatea eta goi-mailako heziketa).
- Helduen hezkuntza.

Norentzat?

- Ikasleak (hezkuntza formala).
- Irakasleak: hezkuntza-langileen premiei lehentasuna emanez, zentroaren ekintzen ondorioak ugartu egiten dira.

1.2.1.2. Gizarte-pedagogia

Ekintza-gunea

Gizartean giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloko pertsona estrategikoei zerbitzua emateko tresnak sortzea eta identifikatzea. Giza eskubideen aldeko hezkuntzaren barruan honako gaitasunak garatuko dituzten materialak biltzea du ardatz:

- Gaitasun analitikoak.
- Gaitasun interaktiboak.
- Arazoak konpontzeko gaitasunak.

Norentzat?

- Funtzionario publikoak.
- Kazetariak eta komunikabideak.
- Gizarte-langileak.
- Elkarateak eta GKE.
- Astialdiko taldeak.
- Pertsona nagusien elkarateak.

1.2.1.3. Herritarren partaidetza

Ekintza-gunea

Gizarte-sentsibilizaziorako eta ikaskuntza esanguratsurako tresnen erabilera sustatzea. Giza eskubideen aldeko hezkuntzaren barruan honako gaitasunak garatuko dituzten materialak biltzea du ardatz:

- Sentsibiltatea, enpatia eta solidaritatea.
- Banakako gaitasunak.
- Taldeko gaitasunak eta sinergiak sortzea.

Norentzat?

- Gizartea, oro har.
- Berriazko gunea: herritar helduak.
- Familia-unitateei emandako arreta.

1.3. Jarduteko programaren eragileak

Zentroaren etengabeko zerbitzuez gain, urtero-urtero pedagogia-baliabideak sortzea eta zabaltzea oinarri izango duten bi funtsezko ekintza garatuko dira. Lehen ekintza Giza Eskubideen aldeko Pedagogia Baliabideen Tokiko Azoka baten inguruan antolatuko da eta, bigarrenak, berriz, urtero-urtero Nazioarteko Mintegi bat antolatuko du.

1.3.1. Nazioarteko Mintegia

Urtero-urtero Nazioarteko Mintegi bat egingo da, giza eskubideen aldeko pedagogia-baliabideen arloko lanak eta eskumenak gure ingurura helarazteko gunetzat hartuko dena. Adituei eta oro har herritarrei irekita egongo da eta urte bakoitzean berariazko gai bat identifikatu eta landuko du.

Nazioarteko Programa honek jada zehaztutako publikoaren zenbait sektorerentzako ekintzak edukiko ditu beti. Alegia:

- Hezkuntza-pedagogiaren inguruko baliabideak eta materialak aintzat hartzea, hezkuntza-sistema formalaren ikasleak eta irakasleak oinarri dituztenak.
- Gizarte-pedagogiaren inguruko baliabideak eta esperientziak sustatzea, publiko espezializatua eta gizarte-eragile nagusiak kontuan hartuta.
- Herritarren partaidetzaren inguruko esperientziak zabaltzea, bereziki, helduei dagokienez eta familia-unitateei arreta ematea faboratuz.
- Gurean erabilgarriak eta errepikagarriak izango diren beste herrialdeetako esperientziak zabaltzea.

Giza eskubideen aldeko hezkuntzaren eta partaidetzaren baliabideak eta esperientziak azaldu eta aurkeztean datzan Nazioarteko Mintegi honek gaitzat honako hauek hartuko ditu:

- Urte bakoitzerako berariazko gai bat edo lan-gune bat hautatzea.
- Ezagutza eta hausnarketara zuzendua.

1.3.2. Giza Eskubideen aldeko Pedagogia Baliabideen Azoka

Zentroaren urteko lehen ekintza Giza Eskubideen aldeko Pedagogia Baliabideen Azoka bat izango da eta bertan tokiko sortzea ere sustatuko da. Interesdun orori eta, bereziki, hezkuntza-eremuko profesionaleri zuzendutako jarduera batean, bi xede argi izango dituen programa bat antolatuko da:

- Giza eskubideen aldeko hezkuntzaren eta herritarren partaidetzaren nobedade eta baliabide berritzaileak ezagutaraztea, euskal herritarrek horiek eskura ditzaten aukera erraztuz.
- Bekak emanaz giza eskubideen aldeko hezkuntzarako metodologia berritzaileak garatzen laguntzeko ikerketa sustatzea.

Pedagogia Baliabideen Azokak materialen eta baliabideen erakusgai bat eta topaleku bat izan nahi du. Ezagutza eta aisiara zuzenduko da eta giza eskubideen aldeko beste ekimen nagusi batzuetan kokatuko da, esaterako, Giza Eskubideen Zinemaldiaren Jaialdian.

Halaber, eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren materialak sortzea sustatze aldera, giza eskubideen aldeko pedagogia-baliabideak eta partaidetza ikertu eta sortzeko bekak eskainiko dira. Zentroak iragarriko du proiektuen aurrehautapena eta aurkezpena eta urtero lan-arlo hauen baitako berariazko gaiak jorratuko ditu:

- Giza eskubideei eta bizikidetzak baketsuari buruzko pedagogia-baliabideak.
- Giza eskubideei eta aniztasunaren bizikidetzari buruzko pedagogia-baliabideak.

Beka horiek gure ingurura egokitutako materialen sortzea ikertu eta sustatzeko premiari erantzuna emango diote, baita gizarte-izaerako arazo eta kezkei ere.

Bizikidetza baketsuari buruzko bekak, hainbat erakunderekin elkarlanean –esaterako, Gogora Institutuarekin–, EAEn bizikidetza baketsua finkatzeko egungo prozesua kontuan hartzen duten pedagogia- eta partaidetza-materialak sortzeko asmoz.

Bizikidetza aniztasunean bekak bereizkeriarik eza eta askotan gure gizarteetan jazotzen den baldintza berdinetan parte hartzearen inguruko urratzea izango lituzke oinarri. Horren guztiaren ondorioz, zenbait arrazoik eragindako desberdintasunen aurrean gaude: jatorri etnikoa, kultura-jatorria, generoa, sexu- edo genero-nortasuna, kultura- edo erlijio-nortasunak, eta abar.

Deialdi publikoaren bidez beka horiek lortuko dituzten pertsonak haien lana Baliabideen Zentroko taldearekin une oro koordinazioan arituz egingo dute. Beraz, bekaren esparruan bideratutako zereginaren emaitza zentroak eskaintzen duen etengabeko lanaren eta zerbitzuen zati izango da.

Urteko bi ekintza horiek, aldi berean, aukera emango dute herritarrei Aieteko Jauregia eta bertako Baliabideen Zentroa herritarrei hurbil dakien, zentroarekiko lotura eta bertako balioen zabaltea faboratuz.

1.4. Zentroaren etengabeko zerbitzuak

1.4.1. Biltzea: Mediateka

Mediateka –pedagogia-materialen, liburuen, online baliabideen, aldizkarien, pelikulen, agirien, argazkien, etab. multzo gisa– proiektuaren alderdi indartsuenetako bat izango da. Bere helburua “baliabideen kutxa” bat izatea da, kanal eta material erakargarriekin eta berritzaileekin, eta baita lidergo eta irizpide propioarekin giza eskubideen aldeko baliabide-pedagogikoen gaian lehenetsuak identifikatzerakoan.

Material horiek bertakoak, eskuratutakoak eta herritarrek emandakoak izango dira (ikus *Materiala sortzea* atala), agian pertsona askok parteka nahi baititzakete gure gizartearen giza eskubideen egoeraren inguruan berriki jazotako iragana edo oraina.

Pedagogia-baliabideak edukiko ditu eta aisiari lotutako materialak (literatura, pelikulak, musika, besteak beste). Hezkuntzaren arloko egungo premiei eta joerei erantzunez, formatuek material inprimatua eta multimedia barne hartuko dute.

Halaber, honako hauek barne hartzeko joera izango dute:

- Hezkuntza sisteman, maila guztietan, giza eskubideak gehitzeko irakaskuntza-baliabideak.
- Lanbide-praktiketan giza eskubideak sartzeko gaitzaileentzako gidak eta eskuliburuak.
- Haur eta helduentzako material didaktikoa eta pedagogia-materiala.
- Giza eskubideen aldeko hezkuntza-kontuei buruzko materiala, tokiko mailan eta nazioartean.
- Giza eskubideen, bizikidetzaren eta partaidetzaren aldeko hitzaldien eta mintegien txostenak eta aurkezpenak.
- Erreferentziazko materiala (bibliografiak eta direktorioak), baita ikus-entzunezko materiala ere.
- Beste agiri batzuk.

Mediatekaren agiri-zerbitzuek honako hauek hartuko dituzte barne:

- Hezkuntza- eta aisia-baliabideak eta nazioarteko baliabideak katalogatzea.
- Agirien datu-base bat sortzea eta mantentzea.
- Zentroarentzat interesgarriak diren baliabideak identifikatzea eta eskuratzea.
- IKTak, baliabide erabilgarrien zati gisa, giza eskubideen aldeko hezkuntzaren lanean gehitzea.
- Baliabideen jarraibide eta informazio osagarriak egitea, profesionalen erabilera errazte aldera.
- Herritarrak baliabideak erabiltzera bultzatuko dituen web-atal batean gehitzea mediatekaren bilduma.
- Hezkuntza-atariak biltzea eta zabaltzea, linean, irekita eta dohainik, eskuragarri dauden kalitatezko baliabide eguneratueta sarbidea edukita.
- Baliabideak erabiltzearen inguruan profesionaleri eta herritarrei arreta ematea.
- Zabaltzea: gaikako zerrendak, nobedadeen aldizkariak, katalogo orokorrak, etab. egitea, hainbat premia eta hainbat taldetara egokituz.

Beraz, honako hauek dira mediatekaren gakoak:

- Askotariko baliabide fisikoak, multimedia eta online.
- Hezkuntza- eta aisia-baliabideak gehitzea.

-
- Publiko bakoitzera egokituak.
 - Katalogoa Interneten eskuragarri.
 - Interneten eskuragarri dauden baliabideak dohainik sustatzea.
 - Mailegu-zerbitzua.
 - Baliabideak erabiltzeko orientazio-zerbitzua.

1.4.2. Sortzea: Materiala sortzea

Eskuratutako materialekin batera, zentroak material berriak, berak egindakoak, eduki nahi ditu, giza eskubideen aldeko gizarte-premiei erantzuna emango dietenak.

- Bakearen kulturaren esparruko hezkuntza- eta pedagogia-materialak, gure historiari eta duela gutxiko iraganari lotutakoak, susta daitezzen eta arlo horretan beste euskal erakunde batzuek –esaterako, Gogora Institutuak– egindako ikerketen osagarriak izan daitezzen.
- Bizikidetzaren aniztasunean sustatuko duten eta jatorri etnikoa, generoa, kultura-aniztasuna, erlijio- eta ideologia-aniztasuna, gizarte-testuingurua, etab. bezalako alderdiak kontuan hartuko dituen bereizkeriarik ezaren printzipioa oinarri duten materialak.

Funtsean, eratzeko hori ikerketarako urteko beken programan sustatuko da, Pedagogia Baliabideen Zentroko intereseko materialak eratzeko aipatu bekak lortuko dituzten pertsonen partaidetza zuzena faboratuko duena.

Halaber, zentroak interesgarriak izan daitezkeen nazioarteko materialak identifikatuko ditu, gure egoerara behar bezala egoki daitezkeenak, euskarara itzulpenak egiteko aukera barne, gure hezkuntza-eremuetan nazioarteko baliabideen erabilera errazteko.

Sektorearen berezitasunak ondo identifikatze aldera, giza eskubideen aldeko pedagogia-baliabideen egungo eta etorkizuneko baliabideak aztertuko dituzten lanak egitea bultzatuko du Zentroak, bai instituzio publikoetatik bai elkarte zibiletatik. Aldi berean, eta pedagogia-baliabideen pisu espeziagoatik hezkuntza-eremuan, hezkuntza formalaren arloko maila desberdinetako curriculumak aztertzea bultzatuko du, giza eskubideen hezkuntzaren presentziaren inguruan.

Horregatik guztiagatik, honako hauek izango dira eratzeko gakoak:

- Askotariko euskarriak eta materialak eta anitzak (euskarri klasikoak: papera; euskarri digitalak: CDak eta online programak; aisia-euskarriak: bideojokoak, etab.).
- Askotariko gaiak eta anitzak (memoria, ekonomia-, gizarte- eta kultura-eskubideak, etab.).
- Ko-eratzeko: berdinaren arteko ikaskuntzatik sortzen diren materialak barne hartzen ditu.
- Egon badauden baliabideak egokitzea.
- Euskarazko materiala sustatzea.
- Pedagogia-baliabideetan beharrak identifikatuko dituzten lanak.

1.4.3. Zabaltzea: Zabaltzea eta hedatzeko ekintzak

Zentroa eta bertako aukerak eta baliabideak ezagutze aldera, baita gizarte-kezkei erantzuna ematen ko-lagunduko duen informazioa sortze aldera ere, zabalkunderako eremuan hainbat ekintza gauzatuko dira:

- **Lankidetzaren erakundeekin eta instituzioekin.** Zentroa zabaltzeko kanal nagusia zentroko pedagogia-baliabideak ezagutarazi eta emateko gizarte-, hezkuntza- eta instituzio-erakundeekin ezarriko den lankidetzaren izango da.

- **On-line presentzia.** Giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloan, eragile nagusien artean identifikatutako beharrei erantzunez, Zentroaren aktibo garrantzitsua izango da on-line presentzia, bere edukiak publiko zabalago baten eskura jarri eta materialen eta baliabideen zabalpena bermatuz.
- **Zabalkunderako beste kanal batzuk.**
 - *Giza Eskubideen Dosierra.* Unean-unean komunikabideetan eta gizartean eztabaida eragiten ari diren gaietarako buruzko informazio- eta dibulgazio-dosierrak sortu ahal izango ditu zentroak, giza eskubideen esparrutik materialak emanez. Dosierrak laburrak eta ardatzuak izango dira.
 - *Erakusketak.* Zentroak interesgarriak izan daitezkeen giza eskubideen eta bizikidetzaren inguruan erakusketak har ditzake barne, betiere EAEko giza eskubideen gainontzeko zentroei jarraikiz eta horiekin koordinazioan arituz. Honela, erakusketak antolatzea zentroan sustatzen diren balioak zabaltzeko beste modu bat da, erakusketa bakoitzaren publikoari egokitutako hizkuntza dibulgatzailea erabiliz.
- **Zentroaren espazioa lagatzea,** EAEko beste erakunde batzuek garatutako giza eskubideen aldeko gaikuntzetarako. Zentroak, sare bat sor dezan eta guztiontzako espazio bat izan dadin, espazioak lagako ditu, batez ere, elkarte-munduari, haien prestakuntza-eta/edo dibulgazio-jarduketak gara ditzaten, betiere zentroaren garapenarekin bateragarriak badira.

1.4.4. Zeharkako zerbitzua: Ko-partehartzea

1.4.4.1. Lankidetzaren elkarrekin eta erakundeekin

Giza eskubideen aldeko hezkuntzak gobernu-organismoetan eta horien artean, giza eskubideen tokiko erakundeetan eta horien artean eta gizarte zibilean eta beraren artean elkarlan eta lankidetzak estua exijitzen ditu. Horregatik, zentro honek ezin du funtzionatu, ez badago EAEko memoriaren eta giza eskubideen beste erakunde batzuekin koordinatuta edo sinergian. Ildo horretan, honako hauek gailentzen dira:

- Gogora: Aieteko zentroa sortzeko pieza nagusietako bat izango da Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua. Halaber, Gogora Institutuari laguntza eman ahal izango dio premia partikularrei dagokienez, baita bertako proposamenak Gipuzkoan barrena zabaldu ere.
- Gernikako Bakearen Museoa: museoaren hezkuntza-ahalmen handia kontuan hartuta, Aieteko Zentroak museoaren ekintzak erreplikatu eta horien ibilbidea egin ditzake, publikoa zabalago batera heltzeko.
- Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia - Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza, Gipuzkoako Foru Aldundiko Bizikidetzak eta Giza Eskubideen Zuzendaritza eta Donostiako Udala.
- Arartekoa, Terrorismoaren Biktimen Memoria Zentroa eta beste erakunde batzuk.

Zentroaren ezaugarriak eta noiz jaio den ikusirik, Aieteko Zentroa Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburutzarekin nahitaez lotutako da. Hala, besteak beste, Bakearen Itsasargiaren proposamenekin batera egingo luke lan eta Europako Hiriburutzaren legatuaren zati izango da.

Giza eskubideen aldeko pedagogiaren eta partaidetzaren ikerketa sustatze aldera, unibertsitateekin aliantzak bultzatuko dira: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU), Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea, eta abar. Aliantza horiek materialak sortzeko beken inguruan sinergiak bilatzean isla argia izango dute.

Bai toki-mailan, bai nazioartean lan egiten duten eta arlo honetan prestakuntza- eta partaide-tza-ekintza ugari egiten dituzten giza eskubideen aldeko GKE eta gizarte-elkarte nagusiekin aliantza. Era berean, emakumeen elkarteekin, jatorri desberdinetako pertsonen elkarteekin eta, oro har, bizikidetzaren aldeko lana sustatzen duten elkarteekin aliantza bilatuko da.

1.4.4.2. Nazioarteko lotura

Zentro honek giza eskubideen aldeko hezkuntzarako baliabideak eta metodologiak bilatzeko duen eguneroko zereginetan, modu naturalean nazioarteko eremua begiratuko du.

- Nazio Batuak: zentroak bere erreferentzien artean arlo horretan Nazio Batuen lana bilatuko du beti, lana eskubideen aldeko ikuspegitik bultzatu duen erakundeetako bat izan baita. Horrez gain, bakearen kultura eta eskubideen aldeko hezkuntza eraikitzea jorratzen duten beste hainbat agentzia ere izan baditu.
 - Kontuan hartu beharreko agentziak: Ezinbestean: Giza Eskubideen aldeko Goi Komisarioaren Bulegoa, beste agentzia batzuk: UNESCO, ACNUR, PNUD, UNICEF.
 - Bereziki, lankidetzaren Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzarako Mundu Programarekin bilatuko da (Nazio Batuak): zentroko ekintzek gure inguruan aipatu programa bidera dadin sustatuko dute (egungo hirugarren fasea kontuan hartzeaz gain, Nazio Batuek garatutako aurreko bi faseetako ekintzak ere gehituz).
 - Horrez gain, giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloan Nazio Batuen goi-komisarioarekin aliantza iraunkorrek ezartzea bilatuko da bi organismoen onerako izango den ekintzak bilduko dituen hitzarmen baten bidez edo antzeko zerbaiten bidez (egon badauden hitzarmenetan sartzeko aukera).
 - Halaber, Nazio Batuen mandatu batekin funtzionatzen duen Bakerako Unibertsitatearekin harremana eta sinergia sustatuko da.
- Nazioarteko beste erakunde eta institutu batzuk. Giza eskubideen izaera eta defentsa ikusirik, nazioarteko beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzea giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloko lanaren xede argia izan beharko da. Hezkuntzaren eta prestakuntzaren nazioarteko trukeak eta jarduketak sustatzea, baita beste eskualde eta herrialde batzuetan espazio horietan parte hartzea ere, zentroaren asmoetako bat izango da.

2. Fase pilotua: 2018-2019

Giza Eskubideen aldeko Pedagogia Baliabideen eta Herritarren Partaidetzaren Zentroaren ibilbidearen lehen urteak izango direnez, xedea proiektua, taldea eta aipatu baliabideak bildu, sortu eta zabaltzeko zerbitzuak ardatzea eta finkatzea izango da.

Biltzea

Izena	Deskribapena	Kalkulu-egutegia
Mediateka diseinatzea eta garatzea	Mediateka, Baliabide Zentroko oinarrietako bat, garatzeko lehen urratsak emango dira. Giza eskubideen arloko oinarri-lanak eta gizarte-segmentuen araberako berariazko premiak identifikatuko dira eta lehen materialak gehituko dira.	2018
EAEko pedagogia-baliabideei buruzko datu-basea	Euskadiko gizarte zibilak, erakundeek eta hezkuntza-eragileek sortutako giza eskubideen aldeko pedagogia-baliabideak barne hartuko dituen online datu-base bat sortzea, baliabide horien egitekoa agerian jartze aldera, sinergiak bultzatzea eta faltsukeria saihestea.	2018
Hezkuntza-atariak bildu eta zabaltzea	Hezkuntza-atariak bildu eta zabaltzea, linean, irekita eta dohainik, eskuragarri dauden kalitatezko baliabide eguneratuetara sarbidea edukita.	2019

Sortzea

Izena	Deskribapena	Kalkulu-egutegia
Beken programa definitzea eta abian jartzea	Beken deialdiko oinarriak garatuko dira, gizarte-sentsibilizaziorako erabilgarriak izango direla eta, era berean, zentroak behar duen material propioa eta egungo euskal egoerara egokitutakoa sortzeko premiari erantzuna emango diotela bermatuz.	2018
Garrantziko materialen egokitzapena eta material propioak sortzea bultzatzea	Itzul daitezkeen (euskara eta gaztelania) eta/edo euskarara egoki daitezkeen garrantziko nazioarteko obren identifikazioa bultzatuko da. Material propioen materialen barruan, beken emaitzak zabalduko dira.	2018

Zabaltzea

Izena	Deskribapena	Kalkulu-egutegia
Webgunea	Pedagogia-funtsak kontsultatzeko beste tresna bat gehiago izango den webgunea erabilgarria sustatuko da.	2018
Giza Eskubideen aldeko Nazioarteko Mintegia	Berriazko gai baten inguruan Giza Eskubideen aldeko Nazioarteko lehen Mintegia sustatzea. Abiarazteko fase honetan, edizio bakoitzean, programa finkatu eta indartu nahi da.	2018
Pedagogia Baliabideen Azoka	Zentroko baliabideak agerian jartzea xede izango duen Pedagogia Baliabideen lehen Azokarako oinarriak eta beharrezko lankidetzak ezartzea.	2018
Giza Eskubideen eta Bizikidetzaren inguruko erakusketa	Gai honi buruzko erakusketa bat identifikatzea, EAEko erakundeekin koordinazioan arituz.	2019
Giza Eskubideen Dosierren ekimena bultzatzeko lehen urratsak ematea	Informazio-dosierak sustatzea, giza eskubideen berriazko krisiei eta gaurkotasan-gaiei buruzko edukia jasoz.	2019

Ko-partehartzea

Izena	Deskribapena	Kalkulu-egutegia
Beken eta beste zenbait alorrean, unibertsitateekin lankidetzak bultzatzea	Lurralde unibertsitateekin beken programaren topalekua eta koordinazioa sustatuko da, lankidetzak-akordioak ezarriz.	2018-2019
GKE eta elkarteekin lankidetzak eta hitzarmenak bultzatzea	Gizarte-erakundeekin lankidetzarako aukerak eta lan bateratua bilatzea sustatuko da, espazioak laga ahal izateko aukera barne hartuz.	2018-2019
Nazioarteko ekimenekin eta eragileekin aliantzak eta lan posibleak sustatzea	Giza eskubideen eta bizikidetzaren zentroekin lanerako topalekuak eta aukerak sustatzea.	2018-2019

Kudeaketa

Izena	Deskribapena	Kalkulu-egutegia
Zentroko praktika abian jartzea eta bere lanerako beharrezko laguntzak edukitzea	Zentroaren beharretara egokituko dira baliabideak, aurretik aipatutako eginkizunak betetzeko beharrezko laguntzak egokituz eta proiektuaren buru diren hiru erakundeen artean koordinazio egokia bermatuz.	2018
Fase Pilotua ebaluatzea	Fase Piloturako hartutako konpromisoen gauzatzeari buruzko ebaluazio bat egingo da; horrek, era berean, Zentroaren etorkizuna garatze aldera erabakiak hartzeko aukera emango du.	

3. Finkatzeko fasea: 2020-2030

Abiarazteko fasearen ostean (2017-2019), zentroak finkatzeko faseari helduko dio. Bertan, zentroaren nor-tasunaren zati diren ekintza horiek indartuko dira, baita ildo horretan premiak antzeman diren eremu horiek hobetu eta zentroaren gaitasunak eta jarduketak zabaldu ere.

Finkatzeko fasean Baliabideen Zentroaren zeregina zuzenduko duten estrategia-ildoek abiarazteko aldiaren amaieran egin beharreko ebaluazioa izango dute oinarri eta horri esker emaitzen egitea eta lorpena identifikatuko da, baita laneko lehentasuneko ildoak identifikatu ere.

Horregatik, proiektuaren egungo fasean, lanerako ildo orokorrak baino ez dira zirriboratu. Honako hauek:

Jarduketa-eremua	Proiektu orokorrak eta xedeak
Biltzea	Publikoaren espezifikotasunari eta materialen eta euskarrien aniztasunari egokitutako askotariko pedagogia baliabideak edukitzea, eduki egoki eta praktikoko materialarekin.
	Helduentzako eta familia-taldeentzako berariazko pedagogia-baliabideen inklusioa sustatzea, aisiarako materialak barne hartuz.
Sortzea	Beken programak eta tokiko eratzeari laguntza ematekoak sendotzea, gai eta formatu desberdinak gehitzeko aukera barne hartuz.
	Zentroaren berezko materiala era dadin sustatzea, antzemandako premiak oinarri hartuta.
Zabaltzea	Giza eskubideen eta bizikidetzaren aldeko pedagogia-baliabideetan prestakuntza- eta gaikuntza-ekintzak bultzatzea, gizarte-eragileekin sinergian.
	Zentroko pedagogia-baliabideak erabiltzean orientazio-zerbitzua sustatzea.
	Zentroko lehentasunekin zerikusia duten aisia-jarduketak bultzatzea, kultura- eta gizarte-eragileekin koordinazioan arituz.
Ko-parte hartzea	Arlo honetako tokiko eta nazioarteko sareetan modu aktiboan parte hartzea.
	Giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloan nazioarteko erakunde garrantzitsuekin prestakuntza-trukeak sustatzea.
Kudeaketa	Zentroko lantaldea fase berrirako antzeman diren premia eta lehentasunetara egokitzea.